

NAGUSITAN, HAUXE IZAN NAHI DUT...

DENBORA: 4 ordu

IKASKETA - JARDUERAK**0 NAGUSITAN, HAUXE IZAN NAHI DUT**

Helburua: Lan kontzeptuari buruz hausnartzea.

Deskripzioa: Hitz egiten hasteko, zein motatako lanak ezagutzen dituzten galdetuko diegu, horietako zein egiten duten eurek, nagusitan zein egin nahi duten, eta esandakoa arbelean idatziko da. Elkarrizketaren bidez, beste jarduera batzuk aipatuko dira, neska-mutilek zein pertsona nagusiek etxean edota etxetik kanpo egiten dituztenak. Arbelean idatzitako jarduera edo lan-motak berrikusiz, zer diren galdetuko zaie: lanak, jolasa edo aisialdia. Ondoren, bi zerrenda idatziko dira koadernoan: lanak eta aisialdiko jarduerak.

Orientabideak: Eskolan egindako lana aztertzea komeni da. Aldi berean, ordaindutako lanak eta ordain gabeak daudela seinalatuko da. Bestalde, lan batzuk boluntarioak edo etxeokak dira, eta denen bizitza hobetzeko egiten dira.

1 ETXEAN... BESTE LEKU BATZUETAN...

Objetivos: RHelburuak: Inguruan (familian, eskolan eta elkartean) egiten diren lanak bereiztea.

Deskripzioa: Zerrendak osatu ondoren, eurek eta euren familiek etxean eta etxetik kanpo egiten dituzten lanak idatzi edo marraztuko dituzte ikasleek, banaka.

Orientabideak: Neska-mutilek etxean eta eskolan egiten dituzten lanak identifikatu eta lana modu egokian egiteak sortzen dituen sentimenduak agerian jarriko dira. (Zer nolako lana egiten duzu eskolan? Eta etxean?. Zure ustez, zergatik da garrantzitsua lana?. Zergatik saiatu behar duzu lana ondo burutzen? Nola sentitzen zara lana ondo burutzen duzunean? Eta besteek nola sentitzen dira zurekin?...). Etxekoek edo ikaskideek lana egiten dutenean nola sentitzen diren galdetuko zaie ondoren.: kontuan hartzen ote dituzten, esker onekoak ote diren... Gero, familiako kide-ek etxean edo etxetik kanpo egiten duten lanaz mintzatuko dira, kooperazioan indarra jarritz. Eskolako lana kontuan hartu: lan-banaketa, koope-razioa, erantzukizuna, konpromisoa, etab.

2 NIRE FAMILIAK EGINDAKO LANAREN BIDEZ IRABAZITAKO DIRUAZ GAUZA ASKO ESKURA DAITEZKE

Helburua: Pertsona guztiek duintasunez bizitzeko bete behar dituzten funtsezko premiak identifikatzea.

Deskripzioa: Familiako kide batzuek egiten duten ordaindutako lanetik abiatuz, adierazi lanak lagundu egiten duela funtsezko premiak asebe-tetzen.

Orientabideak: Taldean banatuta: zertan erabiltzen dute etxeok lanaren truke jasotzen duten dirua? Horietako gauza batzuk duintasunez bizitzeko ezinbestekoak direla ikusi behar dute: elikagaiak, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, ingurumen osasungarria, etab...; baina ez ahaztu, gauza gehiago kontsumitzen ditugula. Zergatik? Funtsezko premiak nola betetzen ditugun galdetu behar zaie: merkatuan dauden ondasunak eta zerbitzuak kontsumituz, alegia: arropa, elikagaiak, liburuak, jostailuak, hezkuntza, ardurak medikoa, zerbitzuak, etab.

3 KAIXO, MOMEMA NAIZ

Helburua: Ordaindutako lana galdu duen norbaiten kasu konkretu bat ezagutu, eta familia barruan gertatzen diren ondorioak aztertzea.

Deskripzioa: Momema-ren testigantza entzunda, lana galtzean funtsezko premiak aseterik ez daukan familietara hurbilduko dira.

Orientabideak: Momema-ren testigantza irakurri, eta bere familiari gertatutako injustizia aztertu. Non lan egiten zuen Momema-ren amak? Zer egiten zuen? Zergatik geratu zen lanik gabe? Nola aldatu da Momema-ren bizitza orduz geroztik? Zure ustez, zer gertatuko zaio Momema-ri eskola joaterik geratu eta gero? Zer egin dute Momema-k eta bere ikaskideek hezkuntza izateko eskubidea defenditzeko?

4 GAUZAK ALDA DAITEZKE

Helburua: Arazo bat konpontzeko Hegoan gertatutako mobilizazio-, salaketa- edo/eta antolaketa-kasuren bat aztertzea.

Deskripzioa: Momema eta bere familiaren kasutik abiatuz, "neska-mutilak entzunak izan dira" izeneko testua irakurri, eta elkarrizketa bat sortuko da ikasleen esperientzia pertsonala aztertzeko.

Orientabideak: Hainbat jendek munduan jasan behar izaten duen injustizia-egoerak aldatzeko ekimenak badirela ikusi behar dute ikasleek. Galdetu ea beren auzoan edo herrian inoiz izan den manifestaziorik edo antzeko zerbait, parte hartu duten, eraginkorrak ote diren, garrantzia al duen agintariek herritarren ahotsa entzuteak. Hegoko ekoizle eta komunitateekin elkartruke ekitatiboa egiteko alternatiba modura ikus dezatela Bidezko Merkataritza.

5 ZER IKASI DUGU?

Helburua: Ikasitako edukiei buruzko ideia azaltzea. Proposamen pertsonalak eta kolektiboak egitea.

Deskripzioa: Monografikoko edukiaz hitz egin, eta munduan milioika pertsonak bizi duten egoera injustua aldatzeko proposamenak emango dira.

Orientabideak: Alternatiba- eta proposamen-zerrenda idatzi. Kontsumitzen diren produktuei buruzko informazioa jaso, erosketak egitean Bidezko Merkataritzako produktuak erosteko eskatu gurasoei.

ETA ZER EGIN DEZAKEGU GUK?


Intermón Oxfam-en Internet bidezko "Munduak konektatzen" komunikazio-proposamenean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Ikasleek Momema-ren historia biziduna ikus dezakete, beste eskola batzuetako neska-mutilekin arazoak komentatu eta soluziobideren bat seinalatzen duen istorio baten azken kapitulua idatzi.

Ondoko web orria kontsultatu: <http://www.intremonoxfam.org/conectandomundos>. Hor aurkituko duzu Lehen Mailako Hezkuntzako bigarren ziklorako proposamen zehatza.

NAQUSITAN, HAUXE IZAN NAHI DUT...

Nire iritziz, hau da lana:

Nire iritziz, hau da aisialdia:



1

ETXEAN ... BESTE LEKU BATZUETAN...



Etxean...

Nire lana...

Nire familiako beste pertsona batzuek...



Beste leku batzuetan...

Eskolan ...

Nire familiako beste pertsona batzuek...

...lan egiten dut

... lan egiten dute

2

NIRE FAMILIAK LAN EGINDA LORTUTAKO DIRUAZ, HAUXE EROSI AHAL DUQU...



Escribe las palabras que corresponden a cada dibujo y colorea cinco dibujos que consideres que son imprescindibles para vivir.



A



L



G



B



E



J




T



J



U



E



O



O




Momema naiz eta Dhaka-n bizi naiz, Bangladesh-en. Amak ehungintzan lan egiten zuen, arropa josten. Soldata ez zen oso handia, baina diru hori ezinbestekoa zen familiarentzat. Nik auzoko eskola batean ikasten nuen, eta lagun handiak nituen.



Baina orain hilabete batzuek ama eta bete langile batzuk kanporatu zituen enpresak. Ugazabek esan zuten ezin zietela lanik eman. Egia dena da Europak eta Ameriketako Estatu Batuek lehen baino produktu gutxiago erosten dizkiola Bangladesh-i.

Nire ikaskide askok eta nik neuk eskola utzi eta lan bila hasi behar izan dugu familiari laguntzeko. Laster eskolara itzultzea espero dut...



GAUZAK ALDATU EGIN DAITEZKE

2002ko apirilaren 28an, Dhaka-ko haurrek giza kate handia osatu zuten, egoera salatu eta hezkuntza-eskubidea defenditzeko.

4

ZER IKASI DUGU?

Kaixo,

naiz


ko

eta hauxe ikasi dugu egunotan:



ETA ZER EGIN DEZAKEGU DUGU GUK?

**Intermón Oxfam-en
Eskolako esku-hartze telematikorako
proposamena**



conectando_mundos



Arauk alda daitezke, zure eskolak

MUNDUAK KONEKTATZEN programan parte har dezake.

www.conectandomundos.org